

Karkara

karkara.com

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2015eko maiatzaren 29a · 362. zenbakia. 26. urtea



EAJk irabazi du Aian eta Orion

2011ko hauteskundera konparatuz, parte-hartzea jaitsi egin da bi herrietan. %32,81eko abstentzioa egon da Aian eta %33,72koa Orion.

11

Akuilua hartuta
Mirari Azpiroz

19

Elkarrizketa
Ramon Lizeaga

22

Erreportajea
Harribilek 20 urte

35

Kritika
Giranice

TAILER MEKANIKOA AUTO LAI



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUZ
SERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@rrejerailagileak.es
2010 ORIO

- ATAK INKUTZEN DITUOI
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATAK IKTXKO MALOKURRI ALDAKETAK
- KOMUNITATEBETZAKO SERBITZUA



Izarra Bideoa



berriro hemen!

469 €
BOSCH

330 €
BEKO
labe+bitro

REMOVE PLANA

299 €
DELL
500GB/15,7"

5 €
8 GB
LEXAR

21

hilabete interesik gabe!!

Eusko gudari, 44 • 943 833 881



EFIGUREN argazki estudioa

**Ezkontzetarako
Prezio Berezia**



Argazki Sesioak, Karpetako Argazkiak momentuan,
Eskuz egindako markoak,
Publizitaterako Argazkiak eta bideo-multimedia,
Argazki Zaharrak berritzen dira.

Eusko Gudari 5 behea 2010 - ORIO • 943.036.425

ROSANA ARRUTI

ARGAZKI ESTUDIOA



Telf: 943 83 58 45
fotorosanaarruti@gmail.com





PATXI OLIDEN

ARGAZKI ESTUDIOA



PATXI OLIDEN

Hemengo horagis.
Ereko produktutoki: txipak, odolak,
txakorra, txarizo, txakotak.

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



Harpidetu zaitez

Izena:

Abizenak:

Nortasun agiria:

Helbidea:

Telefona:

Eposta:

Kontu zenbakia:

**Bete formularioa
eta erredakziora ekarri
edo karkara.eus/harpidetza
helbideko formularioa bete**

362

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako

kolaboratzaileak

Mirari Azpiroz,
Manu Etxeberría,
Iñigo Fernandez,
Iñigo Gaiton,
Iñaki Iturain,
Zorione Mendez
eta Jokin Zumeta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Rodolfo Jimenez eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jauriaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

HASI BERTSOTAN

JOKIN ZUMETA (DOINUA: PELLO JOXEPE)

Neguberriari

1

Euskal Herrian ez al daukagu
8 hilabeteko negu?
Aterki zahar bat aldean hartu
guretzat zenbat endredu
Eguzkiari hemen geratzeko
egiten diot erregu,
hanka zuriak erakusteko
beldurrik bate ez degu!

2

Astebetean etorri zen ta
zirudin geratzen zela,
lepo gañean sentiu genunen
eguzkiaren epela,
azkenaldian etorri ta jun
nola egiten dun bela,
gurasongana tuperrarekin
joaten dena bezela.

3

Etorri zaite maletarekin
pixkatean geatzeko
eguzkitako kit-a nolatan
aspalditik degun presto.
Eguzki krema, betaurrekoak,
sonbrila ta gainontzeko,
enpresa hoiek zaila daukate
gurekin aberasteko.

Publizitatea kontratatzeko:

KARKARA

688 859 682 (Idurre)

publizitatea@karkara.com



karkara.eus

Sendavivara Ametsa Gaztelekuarekin

Ekainerako Sendavivara egunpasa antolatzen gabiltza LH 4tik aurrerako ikasleentzat. 15€ izango da eta prime-rako eguna pasatzeko aukera izango dugu. Aurrerago zehaztasun gehiago!

■ Ametsa gaztelekua.

10 proposamen, udaletik euskara bultzatzeko

Plataforma per la llengua elkarteak dekalogo bat prestatu du katalanaren erabilera bultzatzeko Herri Katalanetako udaletan: <http://bit.ly/1KTenMJ> Guretzat ere abiapuntu baliagarria dela iritzita, dekalogoak euskaratu eta egokitu dut, oriotarren eta, bereziki, udal hauteskunde hauetara aurkezten diren Orioko alderdien eskuera jaritzeko. Etengabeko lanketa eskatzen duen gaia da hizkuntza politikarena eta, tarteka, komeni da kontu oinarri-zeko batzuk berritzea. Hauek dira hamar proposamenak:

1.- Prestigioa ematea hizkuntza-politikaren arloari eta bitartekoak jartzea eraginkorra izan dadin; ahal bada, Euskara batzorde berezitu bat sortuz, arloaren gidaritza-lana egiteko.

2.- Euskara Zerbitzu ondo hornitu eta proaktiboa izatea, Udalari eta herritarrei hizkuntza-aholkularitza emango diena eta alorrez alorreko kanpaina eta egitasmoak diseinatuko dituen goragoko erakundeekin elkar-lanean –HPS, GFako Euskara Departamentua, Urola Kostako Udal Elkar-tea, UEMA...–

3.- Bermatzea udal langile guztiek euskara erabiliko dutela, lehentasu-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

nez, herritarrek hartzeko, nahiz eta gero beste hainbat hizkuntza ere erabili, herritarren aukeraren arabera. Eta irizpide hori berdin aplikatzea Udalak kontratatutako enpresetako langileen kasuan.

4.- Euskara izatea Udalaren komunikazio hizkuntza, bai argitalpenetan, bai barruko agirietan, sinatutako kontratuetan, komunikabideekiko harremanetan...

5.- Euskararen presentzia ziurtatzea kalean eta publizitatean. Udalaren publizitate instituzionala euskaraz egitea eta hizkuntza-baldintzak ezartzea kartel eta iragarkiak jendaurrean jartzen dituztenei.

6.- Hizkuntza-baldintzak ezartzea produktuak erostekoan eta diru-laguntzak ematerakoan. Udalaren eragin esparruaren barruko zerbitzuetan –kiroldegia, kultur etxea, musika eskola, kontzesioan utzitako tabernak...– euskaraz etiketatutako produk-

tuak eta euskarazko zerbitzua ematen duten enpresak baliatzea. Eta, herriko zein kanpoko talde eta elkartei diru-laguntzak ematerakoan, euskararen erabilera baldintza gisa jartzea.

7.- Prestakuntza euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea, bai udal langileei eta baita udalaren eragin esparruaren barruan ikastaroak, jardunaldiak, tailerrak edo horrelakoak jasotzen dituzten herritarrei, harrera-zerbitzuaz baliatzen diren etorri berriak barne.

8.- Hizkuntza-kontzientziazioa bultzatzeko kanpainak egitea, herriko eragileekin eta goragoko erakundeekin elkar-lanean.

9.- Euskarazko kultur programazio sendo eta egokia bultzatzea, Udalaren bitartekoak horretarako erabiliz eta herriko elkartei erraztasunak eta laguntzak emanez.

10.- Bermatzea herritarrek aukera izango dutela euskara doan, edo ia doan, ikasteko, baldintza ahalik eta egokienetan, horretarako bitartekoak jarritz eta laguntzak emanez. ■ **Jabier Zabaleta.** Euskara teknikaria

San Joanetako kalejiran parte hartzeko bilera

Urtero bezala, Harribil dantza taldekoak San Joan jaietako ekitaldia prestatzen hasi gara. Egunean bertan emaldia egiten dugu, baina, lehenago, haurrekin kalejira egiten dugu. Hortaz, kalejira horretako entseguak zehazteko bilera egun bat deitu nahi dugu.

Bilera ekainaren 4an izango da, ostegunarekin, arratsaldeko 18:00etan, Kosta tailerrean. Kalejiran LH2tik aurrerako haurrek, adin horretakoak barne, eta helduek ere hartu dezakete

INSTALACIÓN DE VENTANAS

Sagasti
LEHIOAK

ROBERTO SAGASTI

TEL: 943 13 00 77
FAX: 943 13 71 50
SAGASTI@sagasti-lehoak.com
Auzotze Kalea, 65
48610 OLEA GASIOLA

HAU ETA HELPUERTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBINE ARRILAGA
ARITZAGA KALEA, 1 • TEL: 943 13 49 40
E-mail: rosa@rosakalea.com
10% DESKONTUA FAMILIA UGARIETZAT

SU KIA
SAGASTI JANTZIAK

Ona da zure gure... haur KOPA eta TOPAZ!

- OILASKO ETXERAK ERAMATEKO
- EOLUKEKO MENJIA
- EOLUKARIK
- OGIA

TEL: 943 13 00 77
HAUTATZEA 10.1.2015

parte. Kalejira ekainaren 23an izango da, 21:30ean; eta, emanaldia, egun berrean izango da, kalejiraren ondoren, 22:30ean hasita.

Haur eta heldu guztiei parte hartzeko gonbita egin nahi diegu! Animatu eta azaldu ekainaren 4ko bilerara!

■ **Harribil dantza taldea**

Eskerrak

2015eko maiatzaren 24ean ospatutako hauteskundeetan guregan konfidantza jarri dezuten guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu eta jakinarazi ekinez aurre egingo diegula legegintzaldi berrian ditugun erronka guztiei. Lanerako konpromezua dugu eta ilusioa gure indarra. Ez dizuegu hutsik egingo. Aupa Aia. ■ **Aiako EAJ-PNV**

Eskerrik asko

Eskerrik asko guregan konfiantza jarri

Esker mila zorion mezuengatik

Hauteskunderen jarraipena amaitu genuenean hainbat zorion eta eskertza mezu jaso genituen. Karkarako lan taldeak eskerrak eman nahi ditu zuen babesa adierazi diguzuen guztioi, horrela lana egiteko gogoia eta indarra areagotzen baita! Asko estimatu ditugu jasotako mezuak!

duzuen Oriotar guztioi.

Herritik sortu ginen eta herriarentzat jardun gara lanean azken lau urte hauetan.

Maiatzaren 24ean jaso dugun babesak beste lau urtetarako indarberritu gaitu Oriohobeago baten alde eta Oriotar guztientzat lanean jarraitzeko.

■ **Orain herri plataforma**

Gaztelekutik 34 lagun Murillo de Gállego!

34 lagunek eman dute izena Murillo de Gállegoko irteerara joateko. Lagun talde ederra joango gara bada! Aupa zuek!

■ **Ametsa Gaztelekua**

Harri txintxarrak skateparkean

Herritar batek bere kexa adierazi zuen Orioko skate parkean harri txintxarri ugari zeudelako, eta gutxien espero dutenean, katean ibiltzen direnek min hartu dezaketelako. Argazkia ere bidali zigun:



ZORIONAK!

Presiopean adeitsu izateagatik

Herrian ondo errotu den, eta herritarrek lau urtean behin esku zabalik jasotzen duten mahai-ingurua egitea *kostoso* da. Ez dirutan, baina bai denboran. Eta, korrika eta presaka bizi garen honetan, denborak urrea balio du.

Hori dela eta, moderatzaile lanetan aritu zen Jakes Goikoetxea eta mahaiaren bueltan eseri ziren zerrendaburuak zoriondu nahi ditugu. Bi orduz hauteskunderen begira behar-beharrezkoa ikusten duguna egiteko trabarik ez jartzeagatik.

Mahai-ingurua baino ordubete lehenago bildu ginen kultur etxean, eta, guztiek errespetuzko jarrera izan zuten. Tentsio une hauetan aldamenean duzuen lehiakidearekin tratatu onak izateagatik eskertu eta zoriondu nahi zaituztegu.

Eta, nola ez, eskerrak herritarrei ere, mahai-inguruari horrelako erantzun ona emateagatik.

JAIOTAKOAK

- Uxue Azkue Torres, Orion, maiatzaren 4an.
- Julen Lizasko Bastida, Orion, apirilaren 29an.
- Nere Custodio Beldarrain, Orion, apirilaren 26an.
- Simon Otegi Goenaga, Orion, apirilaren 26an.
- June De La Calle Illarramendi, Orion, apirilaren 23an.
- Aner Argiñano Juzgado, Orion, apirilaren 27an.
- Amets Arrospide Blanco, Orion, apirilaren 20an.

EZKONDUTAKOAK

- Patxi Xabier Satrustegi Aldaz eta Agda Jauregi Irazabalbeitia, Orion, maiatzaren 9an.
- Andoni Atorrasagasti Sarasua eta Lorea Zabaleta Lopez, Orion, maiatzaren 2an.
- Mario Padrones Gonzalez eta Maria Magdalena Mancha Juez, Orion, apirilaren 23an.
- Leire Erguin Munduate eta Xabier Muñoz Asensio, Orion, apirilaren 23an.

HILDAKOAK

- Juan Mugika Azpeitia, Aia, apirilak 22, 89 urte.
- Juan Albizu Zurutuza, Orio, apirilak 30, 76 urte.
- Jesusa Iraola Manterola, Orio, maiatzak 1, 97 urte.
- Benedicta Llorente Lopez, Aia, maiatzak 8, 92 urte.
- Jose M^a Lizarazu Garmendia, Orio, maiatzak 14, 87 urte.
- Ambrosio Martikorena Uranga, Orio, maiatzak 16.
- Maria Luisa Urbietabarria, Aia, maiatzak 21, 71 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoan-garria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



Herritarrak Orioko udaletxean botoa ematen. KARKARA



Botoa emateko orriak eta gutunazalak. KARKARA



Herritarrak Aiako Lardizabal eskolan bozkatzen. KARKARA

Emaitzen dantzan dantzari

“Modu batera edo bestera, bozkatu eta aukeratu dugu ondorengo lau urtetan gobernatuko gaituena”

Badakigu nork gidatuko duen herria datozen lau urtetan. Herritarrek erabaki dute eta testigua eman diete direnek izango direnei; Beñat Solaberrietak Joxe Anjel Zalduari eta Igor Iturainek Nekane Arrizabalagari.

Hauteskunde egunean, hautesleku bakoitzeko kontaketa amaitzean, alderdien whatsappak kantu kontari hasiko ziren, baina baita lozorroan egon diren herritar askorenak ere. Ofizialak izan gabe, twitterreko txoritxoak ere kantatzen ditu emaitzak.

Tabernetan hauteskundearen analisia egiten ari ziren telebista saioaren katea zapalduko zuten urrutiko aginteetan. Zurrutean zebiltzanak telebistari begira adi-adi egongo ziren. Ordua jakin nahian ordulariari begiratu eta begirada beste nonbaitera eraman orduko orduaz akordatzan ez direnak bezala. Datuak telebistan ikusi, baina emaitzen dantza horretan, hurrengo herrira pasatzerako, Orion edo Aian zer gertatu den ez dakitela.

Hauteskunde iluntze-gaua etxetik jarraituko zuten beste askok. Futbol partida baten antzera ikusiko zuten, irratan hauteskundearen saio berezia bolumen altuan sinkronizatuta eta telebistan, bolumen baxuan, emaitzen analisi-saioa. Sofan eserita, familiarrean, esatariak esandakoari ekarpenak egiten arituko ziren asko eta asko.

Eta, ziurrenik, taberna zuloan zerbezak hartzen eta lagunekin biharamuneko parandaz hitz egiten ere pasako dute igandeko eguna batzuk; edo, etxeko sofan etzanda pelikula melankoliko-erromantikoak bata bestearen atzetik ikusten beste batzuk. Modu batera edo bestera, bozkatu eta aukeratu dugu ondorengo lau urtetan gobernatuko gaituena.

Tristura ematen al dizu Loretxu taberna ixteak?



“Asko sentituko dugu faltan Loretxu taberna”

Asko sentituko dugu faltan Loretxu taberna, etxean bezala egoten gara hemen.

Ohitura handia dugu hona egunero etortzeko, eguerdi aldera, ardo batzuk hartzera eta berriketan jardutera.

Bertakoekin ere oso ondo moldatzen gara, ia gure etxea balitz bezala da taberna hau. Ia ia, jaio ere hemen egin ginen. Amona Joxepa ere ezagutu genuen!

Pena da hainbeste denbora irekita egon den taberna bat ixtea. Baina erabakiak hartu egin behar dira eta toki guztiei ailegatzen zaie beren momentua. Bilatuko dugu beste tokiren bat egunero joateko!

Juanito Urkizu

Jubilatua



“Etxean bezala sentitzen gara hemen”

Bai, tristura ematen dit. Handia, gainera. Ni ia egunero etortzen naiz, goizetan. Egun bat edo beste galduko dut baina normalean egunero etortzen naiz.

Beti berak elkartzen gara hemen, betikoak. Eta berriketan aritzen gara hartaz eta honetaz.

Egunero joateko beste tokiren bat aurkitu beharko dugu orain. Tabernak, egon, badaude; Itzala, Gabon eta Antilla, adibidez. Baina nonbaiten egoteko ohitura hartzen duzunean, zaila da aldatzea.

Hemen etxean bezala gaude. Hemen eseri eta denbora erraz pasatzen da. Bakoitzak bere tokia eta dena du.

Bixente Uranga

Jubilatua



“Loretxun ibiltzen gara ondoen, errazen”

Taberna guztiak ez dira berdinak, eta Loretxun ibiltzen gara ondoen, errazen.

Gazteek Loretxu izenarekin ezagutuko dute betidanik, baina lehen *Aldapanea* zen taberna hau.

Pena handia ematen digu ixteak. Hemen elkartzen gara egunero-egunero, eta gauza askori buruz hitz egiten dugu, arrantza eta horrelakoei buruz.

Faltan sentituko dut, batez ere neguan. Udan ere etortzen gara, kanpoan jartzen gara, baina neguan barruan ederki egoten da.

Nahiko nuke gazteren batek hartuko balu taberna orain, horrela ez litzake itxita geratuko.

Inaxio Genova

Jubilatua

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lesonel.com/argine

Tel.: 943 13 48 89

5%ko DESKONTUA FAMILIA UGARIEI TXARTELAREKIN

ARISTERRAZU

jatetxea

Andatza auzoa AIA

Tel.: 943 83 45 21

GARMENDIA

INGURUAK - ANOLAK - BARRIOAK

Ibai Ordo, 1

Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

HAIZE BERRI

taberna-jatetxea-kafetaria

Plater konbinatuak, bokata, hamburguesak, rucioak, egutako menua...

eta elkarrekin zerbiztuak

Bada 2015eko maiatzaren 29a

Oriotarren iraultza, martxan

Munduan iraultza giroa nagusitzen zen; Orion iraultza arraunean gertatu zen, 1965ean elkarte berria sortu zenetik. Parisen, 68ko maiatzean kultura, politika, gaztedia eta berrikuntzak bor-bor zebiltzan bezala, Orion ere bazebilen giro hori: oriotarren iraultza zen.

TESTUA: MANU ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: ORIOTARREN IRAULTZA -1965/1975-

Aurreko atalean adierazi genuen moduan, 1970ko arraun-denboraldia oso berezia izan zen euskal arraunketarentzat, tradizio eta ohitura zaharretan oinarrituta zegoen arrauna aro modernoan sartzea ekarri baitzuen. Orioko traineruak Kontxan iraileko aurreneko igandean egindako erakustaldia betiko geratu zen milaka eta milaka arraunzaleen begietan.

1968 Elkartea, abangoardian

Orion hainbat eta hainbat berrikuntza gertatu ziren 1968. urte ospetsu hartan: aurreneko Nazioarteko Estropadak, atzerrira egindako irteerak, Espainia mailan CRO Orioko Arraunketa Elkartearen nagusitasuna... guztia ere herrian finkatzen ari ziren ohitura eta arau berriak gidari.

Estropadetarako ordu erdi lehenago prestatzen, berotzen, hasita zeuden Patxi Sarasuak gidatutako arraunlariak. Ordu-ra arte, haren esanetan*, *ontzian sartu eta estropadaren irteerara joan eta estropada hasi, izaten zen*. Frantzia aldean –Libourne, Bordele eta Paris– estropadetan parte hartzen hasi zirenean, Sarasuak eta kide zuen Juanito Altxerri han ikusitakoak ikasten jarrita zeuden.

Peter Karres eta Alber Mainella

Patxi Sarasuak bildutako gazte-taldearen grinak zuen indarra paregabea zen, eta emaitzak iristen ari ziren. Esate baterako, Frantzia aldean jokaturako estropada haietan lortutako emaitza onei esker, Orioko CRO izena entzuna izaten hasi zen, eta hara joateko ez zen gonbidapen faltik izaten. Kanpora joan ziren batean, Alemaniako Peter Karres arraunlariarekin kontaktatu zuten oriotarrek, eta haren laguntza entrenamendu-prestaketan eta abarretan oso handia izan zen.

Hurrengo urtean, 1969an, nazioartean atletismoko entre-

natzaile zebilen frantziar bat, Albert Mainella, Oriora ekartzea lortu zuten. Mainellak, prestaketa fisikoa eta elikadura kontutan zeuden ohiturak eta sineskeriak baztertu zituen erabat. Artean, ohikoak ziren entrenamendu saio laburrak; esate baterako, trainerutan hogei minutukoak, estropadak irauten zuen denbora berberekoak. Eta erabat onartuta zegoen estropada aurreko egunetan, eta egunean bertan, kiloko txuletoiak indarra ematen zuela.

Orioko laukoa, Estatuko selekzioan

Elkartea ziztu bizian zihoan goruntza, eta horren lekuko izan zen, Espainiako selekzioak Europan egindako bira batera herriko bost estropalari eraman zituela, Banyoleseko laukote batekin zortzikoa osatzeko. Luxiano Manterola, Juanito eta Jose Ramon Altxerri anaiak, Estanis Sarasua eta Bixente Korta lemazaina, Frantzia, Alemania, Belgikan eta Suitzan ibili ziren hogei egunetako bira egiten.



Orion benetako iraultza gertatu zen urte haietan.

50 URTE OLATU GAI NEAN: 1968-1970



I Nazioarteko estropaden kartela

Aste batzuk lehenago, Estatuko txapelketan, Orioko zortzikoak eta lemazain lauhoak txapela irabazi zuten, ondoren go urteetan oriotarrekin norgehiagokan ibili zen Banyoleseko taldea gaindituta.

Oxfordeko zortzikoak, Orion

Herri mailan, eta Euskal Herri osoan, arraunzaleak garaipen horiekin harrituta bazebiltzan ere, historiaren hurrengo atala are zirrargarriagoa izan zen. Gazte olinpikoak goi mailan ari zirela begi-bistakoa zen, baina, uda iritsi eta, hara non Oxfordeko zortzikoak herrira etorri zen. Nazioarteko estropaden zalaparta Gipuzkoako herri txiki honetatik Kantauri osora iritsi zen, eta, telebistari esker, baita Espainia eta Europa ere. AS kirol-egunkari sortu berriak egunero eman zion orrialde osoa astebetean Orioko nazioarteko estropadari.

Elkartearen lehen presidentea zen Antonio Camposek gogoratzen duenez*, *Madrilera joan ziren, eta leku gehienetan, oso gazte eta gogotsuak ginela ikusita, ondo hartu gintuzten. Londresko enbaxadorearen bitartez Oxford etortzea lortuta gero, A Segunkaria eta TVEkoekin ere hitz egingenuen, eta horrela lortu genuen hura martxan jartzea.*

I Nazioarteko estropadak martxan zeuden. Hortik aurrera, harmailak moilan alde batetik bestera, publizitatea Gipuzkoa osoan, herri-herri, txapela horiak milaka... Iñaki Agote zen diruzaina zuzendaritza-talde gaztean eta antolakuntza gogoratzen du*. *Benedicto Etxeberriak harreman onak zituen nonahi, eta aurreko urtean Hernanin Ziklo-krosetako Munduko txapelketa antolatu zuten lagunak asko lagundu ziguten. Madrilan izan ginenean ere, bera etorri zen. Areilza politikari euskalduna ezaguna zuen, eta Telebistako buruzagi batzuekin ere bazuen harreman ona.*

*Aipuak: Oriotarren iraultza -1965/1975- liburutik hartua.



610 697 668
943 831048
www.fotoramiro.com

PERTSIANAK
AKO MAZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Portu ERRETEGIA
Santxo Eneka Auzoa, 21
943 89 4434
20800 AIA-ORIO
Erretetik erretetik
Erretetik erretetik

SARASUA ERRETEGIA
Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak
Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

Seguros Bilbao
Orioko ordezkaria
Santi Barranco
Telf: 618581398
Artiago, 2 - 2º solairua
20810 Orio (Gipuzkoa)
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

URAITZ
Lurrindegia
jandiz-merkatuak
Euzkadi, 3 Tlf: 943 84 18 97

ASADOR XIXARIO
Euzkadi, 2 Tlf: 943 83 12 59

ITZALA
Kartelak jehatzen
dizkizue
Tel. 943 83 12 59

tel/fax: 943 89 00 69
Bilbao kalea, 4 20100 ZARAUTZ
URBIDE
ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA
Prestatzen dituzten zerbitzuak

PIZZERIA KALETA
ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

ITZIAR
Kiroak
Tel. 943 83 31 03

Zarautz Hileta Zerbitzuak
Harrespil Hilerri Zerbitzuak
> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra
Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

Gehiegizko eskuzabaltasuna



Mirari Azpiroz

Espero dut etorkizunean, euskaraz sendatu nahi duenak, profesionalak euskaraz dakiela adierazten duen karteltxoaren bila ibili behar ez izatea

Ezagutzen nauzuenok badakizue Orion askotan ibiltzen den aiarra izateaz gain, erizaintza ikasten ari naizela. Eta ez bazenekiten, orain badakizue parrandaz aparte beste zerbaite egiten dudala nire bizitzarekin. Hori esanda, etxera joko dut, nirera, denok egin ohi dugun bezala.

Duela egun batzuk klasean euskal kulturaren inguruan hitz egiten hasita, irakasleak beste ikaskide baten esperientzia bat kontatu zigun. Antza, euskaraz bakarrik zekien gaixo bat zegoen, eta beregana medikuarekin bisita pasatzera joan zirenean, erizainak eta ikasleak euskaraz hitz egin omen zioten. Honen aurrean, medikuak horrela esan omen zuen: *aquí se habla en castellano*. Hemen ikus dezakegu duela hilabete I. Mendiari eginiko elkarrizketa batean aipatzen zuen *castellano-parlanteen* eskuzabaltasuna. Okerrena da gelatik irtendakoan erizainak ez ziola ezer esan *Mediku Jaun Txit Gorenari*. Hori da gehien harritzen nauena, beren *eskuzabaltasun* hori harro erakusten uzten zaiela gainera. Eta oraindik, Osakidetza bezalako zerbitzu publikoa ez dela gai, bere zerbitzu guztiak herri honetan ofizialak diren bi hizkuntzatan emateko. Eta jendea kexu da oposaketetan euskarari garrantzi handia ematen zaiolako, gehiegi puntuatzen duelako. Nire ustez ez luke puntuak irabazteko zerbaite izan behar, baldintzetako bat izan beharko luke, erizaintzako edo medikuntzako gradua bezala.

Ez nintzen ni bakarrik ikasgelan iritzi hori zuena, eta sare sozialetan zabaldutako medikuntzako graduazio ekitaldiko bideo batean ikusi bezala, medikuen artean ere bada gai honetaz kezkatzen denik. Badakit, gaur egun, oso erabilgarriak direla Osakidetza horiek, profesionalak euskaraz badakitela adierazten duten horiek. Baina egia esan, espero dut etorkizunean beharrezkoak ez izatea eta euskaraz sendatu nahi duenak karteltxoaren bila ibili behar ez izatea.



Rikardo Uzkudun

Moila bazterrean

Eukatzeaz da ikasturtea, eta bukatu dira futbol eta saskibaloiko ligak. Ez dago aditua izan beharrik jakiteko Realak eman diola azken bultzada Eibarri putzura erortzeko.

Pablo Lasok bultzada duela Gipuzkoa Basket moila bazterretik behera. Bista-koa da, Eibar zein GBC, bere merituz zeudela moila bazterrean, hanka bat lehorrean eta bestea airean zutela. Baina, asmatu ezinik nabil ia, Gipuzkoan, EH Bildu moilatik bere kasa erori den ala EAJk bultzada ote duen.

Egia esan, bateko eta besteko datu eta iritzien erdian zer esan ez dakidala geratu naiz. Jakinekoea da, gobernuan dagoen edozein alderdi egoten dela urertzean, itotzeko arriskuan. Eta, nolabait esateko, oposizioaren lana ere bada plazatik moila bazterre bultzatzea.

Eta, hemendik aurrera zer? Hasteko eta behin, twitterren lagun batek zioen bezala, espero dugu alkatea aldatzean ordenagailurik ez formateatzea. Espero dugu adostasunak bilatzea, informazioa trukatzeko, gobernuaren proposamenak serio eztabaidatu eta erabakitzeko, eta oposizioak ere proposamenak egitea.

Ematen du, beste lagun batek zioen bezala, oposizioak kanoak funtzionatzen duela, moila bazterre bultzatzeak funtzionatzen duela, baina ez daitezela, faborez, hasieratik bultzatzen hasi. Pare bat urte behintzat aguantatu ditzatela plazan, eta noizean behin dantzatzea egin dezatela agarran.

“Kooperatibaren etekinak proiektu sozialetan inbertitzen ditugu”

Imanol Iturrioz

Inbat Kooperatibako bazkide eta sortzailea

Aholkularitza tradizionaletik dator Imanol Iturrioz –Pasai San Pedro, 1977–, baina beti erakarri izan du erantzukizun sozialaren gaiak. Biak uztartuta sortu zuen Inbat. Beste norabide bat eman nahi zion aholkularitzari.

M. GARCIA

Bi bazkide dira, baina formazio eta aholkularitzarako kolaboratzaile sarea osatua dute, beren lanetan adituak diren pertsonekin. 2014ko urritik martxan dago Inbat Kooperatiba, enpresen erantzukizun soziala lantzen, eta Imanol Iturrioz da sortzailea.

Ekimen sozialak dituen kooperatibazarete, gizarte eragin positiboa izatea helburu duena. Hori da Inbat?

Gure lana bi arlotan banatzen da, formakuntza eta aholkularitza soziala ematen ditugu. Beste edozein enpresak bezala funtzionatzen dugu, desberdintasun batekin: kooperatibaren etekin guztiak proiektu sozialetan inbertitzen ditugu.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin egiten dugu lan, adibidez. *Oztoporik Gabeko Bainua* izeneko programa batekin, hain zuzen. *Mision Bangassou* izeneko GKE batekin ere kolaboratzen dugu eta enpresen derakinak –merkatutik kanpo edo deskatalogatuta dituzten produktak– Afrika Erdiko Errepublikara eramaten dituzte.

Mindara elkartearekin ere lan egiten dugu, antolakuntzan gaude. Teknologia berrien bitartez, dibertsitate funtzionala duten gazteengan trebetasunak indartu nahi ditugu, etorkizunean *babestutako lantokietatik* kanpo lanean aritu daitezzen.

Pertsonengan inbertituz gizartea garatzen dugu, pertsonak garatuz gizartean inbertitzen dugu. Hori dio zuen leloak.

Formakuntza ematean, enpresarentzako onura sortzen ari gara, langileen gaitasunak handitzen ditugulako. Baina, horrekin batera, gizartean inbertitzen ari dira, gure irabaziak proiektu sozialetan inbertitzen baititugu. Horrek esan nahi du gizartean inbertitzen ari garela.

Aholkularitzan ere gai sozialak lantzen saiatzen gara; genero berdintasuna, adibidez. Pertsonengan inbertitzeko beste modu bat ere bada hori.

Gaur egun pertsonen balio gutxi ematen zaiela uste al duzu?

Ez pentsa. Hemen inguruan erantzukizun soziala aspalditik egiten da, baina orain arte ez zaio izenik jarri. Hemen inguruan kooperatiba asko daude, eta horien irabazien %10 gai sozialetara bideratzen dituzte.

Guke egiten duguna laguntza sozialen politika hori egitura-tzea da, gizartearentzat ez ezik, enpresarentzat ere onuragarria izan dadin. Eta azken finean, erantzukizun sozial handiena lanpostuak sortzea da.

Nolako harrera izan duzue?

Harrera oso ona ari gara izaten. Enpresek badakite gurekin lana egiten badute ekimen sozialak bultzatzen ari direla, eta horrek ate asko irekitzen ditu. Oso gustura gaude.

Ekintzailetasunaren bidea hartu duzue. Garrantzitsua al da ekintzaile izatea?

Bai, noski. Oso garrantzitsua da. Esperientzia honetan ikusi



Inbat S. Coop.-ren sortzaileetako bat da Iturrioz. KARKARA

“Erantzukizun sozialak barrutik hasi behar du, langileak zainduz. Etxea garbi duzunean, kanpora begira jarriko zara”

dut instituzioetatik ekintzailetasuna bultzatzeko espazio eta zerbitzu asko daudela, baina ekintzaile gutxi. Jende askokez ditu laguntzak ezagutuko, baina uste dut gehienbat bertigoagatik dela. Oso polita ematen du guztiak, baina salto egin behar da eta gogorra da. Eta norberaren egoeraren arabera, ekintzaile izateak ematen ez dizun segurtasuna behar duzu.

Enpresen erantzukizun sozial erreaz hitz egiten duzue. Zer da hori?

Enpresako gizarte erantzukizunak esanahia galdu du nola bait. Enpresa askok marketinerako erabiltzen dute, baina benetako edukirik gabe. Kanpora begira oso *berdeak* dira, energia berriztagarria erabiltzen dute, baina barruan langileak oso baldintza txarretan dituzte.

Guk koherentzia bilatu nahi dugu; erantzukizun sozialak barrutik hasi behar duela uste dugu, etxean bertan, langileei baldintza duinak emanaz eta kontuan edukiz. Eta etxea garbi duzunean, kanpora begira jarriko zara.

Etika eta koherentzia gutxi al dago egungo gizartearen?

Denetarik dago, egia esan. Hemen inguruan langileekiko politika onak dituzten enpresak aurkitu ditugu. Baina beti izango dut duda bat buruan: lan baldintza onak eskaintzen dituzte enpresa ondo doalako, edo enpresa ongi doa langileria zaintzen dutelako?

Lizaso
dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Elusko Gudari, 48

LEUNDA
OKINGEDIA



ORDUTEGIA

ESTILINDOTIK - LARRUMESTERRA - NERNDI eta JIR EGOKITZOK

Orioko
Herri
Ikastola



Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

arkaitz taberna
orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Nahikari

HAIR DENDA



Arrieta kalea 35
20100 - Oriz
Tel: 943 83 34 30
www.nahikari.es

OREKA
FISIOTERAPIA



Tendinitisak
Lumbalgia
Artrrosia
Zefaloak

Masaje terapeutikoa
benetako diagnostikoa
eskuak erabiliz
ostelergoan

943 13 35 37

Arrieta kalea, 11. behe

kutixi
kafetegia
GOSARI GONDAK



Arrieta 5, 20100 Oriz
Tel: 943 13 10 11

ardoak, urdalkiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eromaten ditugu



943 83 09 84

alta Iertxundi, 36
ORIO

Katu
HORIA



Arrieta kalea, 10

ESTROPALARZ, 10
20100 ORIZ

tel. 943 11 66 99

larraldia: 685 69 11 29

www.katuhoria.com

MARISKADA
35,50€



LANGOSTA 1
LANPERNAK
2 NEKORA
KARRAKELLAK
6 OTARRAINAK
TXAGURRO EGOSIA
TXANGURROA DONOSTIAR ERARA

Orizko hondartza - Tel: 943 83 04 18


sinergia FISIOTERAPIA
IKERKETA



IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAJNTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPIA-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



Herriaren norabidea aukeratuta

Egoera errotik aldatu da Orion. Alderdi bozkatuena EAJk izaten jarraitzen du, baina **alkatetza ere jeltzaleena izango da, noski**. Aian indarrean zegoen EAJk indar handiagoa du orain, zinegotzi bat gehiago izango baitu.

TESTUA: O. ARTOLA
ARGAZKIAK: KARKARA

Jeltzaleak izan dira babestuenak, nola Aian, hala Orion. Orain arte agintean izan direnek jarraituko dute gobernuan Aian, Nekane Arrizabalagari emango dio testigua Igor Iturainek; bertatik bertara. Oposizioan, bi zinegotzi gutxiagorekin, EH Bildu izango da.

Orion, duela lau urte bozkatuena izan zen EAJk jaso ditu, aurten ere, boto gehien. Udalbatzarreko sei zinegotzi jeltzaleak izango dira, lau EH Bildukoak, bi Orain plataformakoak eta bat PSE-EEkoa.

Boto gutxiago jaso arren, jeltzaleak bozkatuenak
 2011n EAJ izan zen arren bozkatuena, udal gobernuari Orioko

EH Bilduk eta Orainek osatu zuten. Aurten ere, boto gehien jaso dituen alderdia EAJ izan da, eta, 180 graduko aldaketarik ezean, Joxe Anjel Zaldua izango da Orioko alkatea. Emaizarekin oso pozik dago oriotarra. *Gure helburua sei zinegotzi lortzea zen, eta lortu dugu*, azaldu du Zalduak.

Aurreko legegaldian bezala, sei zinegotzi izatea lortu dute jeltzaleek, baina duela lau urte baino boto gutxiago jaso zituzten. 2011n 1.268 boto eta 2015ean 1.133. Boto kopuruaren jaitziera parte hartzearen jaitzierarekin lotu du Zalduak: *Abstentzioarekin boto gehien galtzen dituztenak alderdi bozkatuenak izaten dira, normalean. Boto gehien galdu dituen Bildu izan da eta, beren atzetik, gu gaude boto gehien galdu dituztenen artean.*

EH Bilduk lau urte hauetan 148 boto galdu ditu. 2011n 1.038 oriotarrek bozkatu zuten Bildu, eta, aurten, 890 herriarrek. Emeterio Iribar zerrendaburuak azaldu duenez, sa-



kon baloratu gabe, botoen galeraren giltzak hauek lirateke: *Gipuzkoan ikusi den beheranzko joera, eta gobernuan egotearen desgasteak taldearen mugak agerian utzi dituela.* Botoen galerak zinegotzi bat galtzea ere ekarri die, bost zinegotzi izatetik lau izatera pasa dira. *Guk bosten itxaropena genuen eta laurekin gelditu gara. Espero genuena ez dugu lortu, aitortu du Iribarrek.*

Botoetan gora egin dutenak Orain eta PSE-EE izan dira. Miriam Uranga alkateordeak, ordea, sentsazio gazi-gozoa du: *parte hartzea ia %8a jaitsi da eta hori ez da pozgarria. Gure lana partaidetzan oinarrituta dago, beraz, datuak ezin ditugu ontzat eman.*

Sozialistek boto gehiago eskuratzear gain, 2011n galdutako zinegotzia lortu dute. *Lau urte udaletxetik kanpo egon ondoren, kosta egiten da zinegotzia berreskuratzea, eta are gehiago herri txikietan. Zinegotzia berreskuratzea eta botoak biderkatzea, pozgarria da oso. Jendeak berriz gudan konfiantza duela jakitea, eta lana egiteko aukera ematen digula ikustea, zoragarria da, dio Ana Priedek.*

Aian jeltzaleen gorakada

Aian, ordea, jeltzaleek botoetan gora egin dute. 2011n baino 15 boto gehiago jaso dituzte eta zinegotzi bat gehiago lortu dute EH Bilduren jaitsierarekin. Arrizabalagak aurreko legegaldian egindako kudeaketa onarekin eta jarraipenarekin lotu du gorakada. *Jendeak taldearengan konfiantza du, aitortu du eta hori oso positiboa dela gaineratu du.*

Enaut Guruzegaren ustetan, EH Bilduren beherakadaren arrazoiak Foru Aldundian gobernatzearekin lotu ditu: *Ez dakigu herri mailan zergatik gertatu litekeen jaitsiera, baina, badirudi, Foru Aldundian gobernatu izanak desgastea eragin diola EH Bilduri.*

Abstentzioak gora egin du

Aian ez da errolda aldatu lau urtetan. 1.533 lagunek bozkatu zezaketen bi hauteskundeetan. Bozkatu duten lagunen kopurua, ordea, ez da bera izan. 2011n 464 lagun abstenitu ziren

“Gure helburua sei zinegotzi lortzea zen, eta lortu dugu”

JOXE ANJEL ZALDUA

“Bosten itxaropena genuen eta laurekin gelditu gara. Ez dugu espero genuena lortu”

EMETERIO IRIBAR

“Gure lana partaidetzan oinarrituta dago, beraz, datuak ezin ditugu ontzat eman”

MIRIAM URANGA

“Zinegotzia berreskuratzea eta botoak biderkatzea, oso pozgarria da”

ANA PRIEDE



eta 2015ean 503. Abstentzia %2,54 igo da.

Orion, errolda aldatu egin da lau urtetan: 2011n errolda 3.992koa zen eta, aurrean, 4.265koa izan da. Baina, dena den, abstentzia igo egin da, %7 inguru. Duela lau urte %26,08koa zen abstentzia, 1.041 lagunek erabaki zuten ez bozkatzea; 2015eko udal hauteskundeetan %33,72koa izan da abstentzia, bozkatu zezaketen 1.438 oriotarrek ez dute bozkatu.

Oriotarrak eta Aiarrek hemendik kanpo

Asko dira Orion eta Aian jaio, hazi edo bizi direnak eta politikagintza kanpoan egiten dutenak. Leandro Azkue Iribar oriotarra zinegotzi izango da Amasa-Villabonako udalerrrian, EAJ alderdiaren izenean. Alderdi bereko oposizio-buru eta zinegotzi, aldameneko herrian, Zizurkilen, izango da Marian Lazkano. Donostiako alkate izan da Aian bizi den Eneko Goiak. Nikanor Lertxundiren EH Bilduk babes handiena lortu du Getarian, 933 botorekin. Lertxundi alkate izan da azken lau urtetan eta errepikatu egingo du datozen lau urteetan ere.

Batzar Nagusietarako ere jeltzaleak nagusi

Aian eta Orion, EAJ izan da alderdi bozkatuena Batzar Nagusietarako, 536 eta 1255 bozkekin, hurrenez hurren. Bigarren alderdi bozkatuena EH Bildu izan da, 391 eta 965 bozkekin. Batzar Nagusietan ere izango dute presentzia oriotarrek eta aiarrek. Ione Cisneros Ahal Dugu - Podemosen izenean, eta Marian Lazkano eta Ainhoa Usandizaga EAJtik izango dira batzarkideak.

Alkate aldaketa ekainaren 13an

Legeak ezartzen du alkate aldaketa hauteskundeak pasa ondoren noiz egin behar den. Jaurlaritzaren arabera, ekainaren 13rako osatu behar dira Udal Gobernuak eta aukeratu behar dira alkateak. Badirudi ez dela aparteko ezustekorik egongo. Aian, gehiengo absolutuarekin, Arrizabalagak jasoko du alkate makila. Orion ere, emaitzengatik eta alderdiek esandakoagatik, Zaldua alkate izango dela ondorioztatu daiteke.

“Jendeak taldearengan konfiantza du eta hori oso positiboa da”

NEKANE ARRIZABALAGA

“Foru Aldundiangobernatu izanak desgastea eragin dio EH Bilduri”

EÑAUT GURUZEAGA

ELKARRIZKETAK



Zerrendaburu balorazio elkarrizketak. Alderdi gutzieta-ko zerrenda buruak hauteskunde biamunean elkarrizketatu ditugu balorazioa egin dezaten. Elkarrizketa horiek karkara.eus webguneko *hauteskundeak2015* kanal berezian daude bilduta.



Oriotarrak Liègen

Aldapa zikloturista elkartekoek Liège-Bastogne klasikoan hartu zuten parte apirilaren 25ean. Iazko urrian hasi ziren bidaiari forma ematen, entrenatzen. Hotza eta euriarekin egin zuten 276 kilometroko ibilbidea, talde izateari momentu bakarrean utzi gabe, elkar lagunduz.

Honakoa diote parte-hartzaileek: *Esperientzia ikaragarri aberatsa izanzen, zentzu guztietan. Alde batetik, egindako kilometro kopurua aintzat hartzeko modukoa da. Bestalde, Aldapa taldearen izenean joan eta talde moduan lan egin genuen, lehentasuna taldea izanik. Ikusitako paisaje, errepidea eta kultura ere oso aberasgarriak izan dira. Errepikatzeke moduko esperientzia izan da!*

KARKARA ETA ALDAPA ZIKLOTURISTA ELKARTEA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.


Zaragueta
Herri Eskola Orlo
 telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: 012137aa@hizkuntza.net

XABIER URRETABIZKAIA
 - Instalazio elektrikoak
 - TDT antenak
 - Aterekin autmatikoak
 60 urte zerbitzua ematen
 ☎ 943 83 17 74
 Arantzako St. 20860 0820

URANGA
 burdindegia
 Opari, menaje eta erremintak
 fer.uranga@euskalnet.net
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Maiatzeko sarituak

Ane Miren Fernandez Ostolaza

Amaia Larrinaga Estankoa

Juan Azpiroz Aldaz

Orio Hizkuntzak

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko





KARKARA

“Hamabost urteetan topatutako lagunen gaztak eta gureak ditugu”

Ramon Lizeaga

Gazta ekoizle eta saltzailea

Aian egiten du gazta, eta Donostian saldu. Merkatuetan berak saltzen zuen produktuaren bila joaten zirela ikusirik, ideia berria gauzatu zuen Lizeagak: gazta bakarrik salduko duen denda.

OLATZARTOLA

Donostiako Elkano kalean, paseoan zabiltzala, usainak ez bada erakuslehoak erakarrira, Ramon Lizeagaren –Pasaia, 1974– *Gazta is cheese* dendara gerturatuko zara, Euskal Herriko lehen gazta dendara.

Lehendabiziko gazta denda zabaldu duzue Euskal Herrian.

Horretarako beharra zegoen. Gazta ekoizleak gara eta Donostiara etortzen ginen saltzera. Ez zegoen tokirik non gaztak bakarrik hitz egin zitekeen; hutsune hori zegoen. Kanpoan, ordea, gazta denda ederrak topatu ditugu. Eta, geure buruari zergatik hemen ez galdetzen genion. Azkenean, animatu egin gara.

Eta erosleek eskertu al dute hori?

Merkatua ondo aztertua geneukan aurretik. Astero-astero auzoz auzo ibiltzen gara Donostian, azokan, gazta saltzen. Plazara aukera gehien ematen ari ginenak ginen, hemen inguruan. Jendea atzetik etortzen zela ikusi genuen, gure eskaintza estimatu egiten zutela. Eta hori dendan ere islatu da, hilabete daramagu negozioarekin eta perspektibak betetzen eta gainditzen ari gara.

Askotariko gaztak dauzkazue.

Gutxi gorabehera 25 gazta ditugu orain. Gure ekoizpenarekin eta gaztagintzan daramatzagun 15 urteetan topatutako lagunekin osatu dugu denda. Dena den, eskaintza aldakorra da; gazta batzuk garaian-garaikoak baitira, beste batzuk

orain ari dira ontzen, artzainak mendira joango dira eta gazta egiteari utziko diote...

Ekoizpen propioko bi gazta dauzkazue, ezta?

Ardi gazta urdin bat eta behi gazta bat, bai. Bi gaztekin ari gara lanean.

Baina ez zara dendan dagoen Aiako ekoizle bakarra...

Hemen, oro har, aukera gutxi dago. Aiak kolorea jartzen dio Euskal Herriko gaztagintzari, barietate gehien han egiten baita.

Euskal Herrian aukera gutxi egonda, jendeak ohitura al dauka gazta ezberdinak dastatzeko?

Jendea ohituta dago beste gazta batzuk jaten eta erosten. Kontua zera da, kanpokoak direla gazta horiek. Batez ere supermerkatuetan eta azalera handiko dendetan aurkitzen dituzte gazta mota horiek. Baina horiek ez dira gurearen tankerakoak, ez baitira horren egiazkoak. Jendeak erraz desberdintzen ditu gure gaztak eta supermerkatukoak eta hori aintzat hartzen dute.

Ohitura badago, hortaz, hainbat gazta mota jatekoa.

Gero eta gehiago, gainera.

Negozioa beste lagun batekin ireki duzu, italiarra bera.

Gazta-dastatze batean ezagutu gendun elkar, duela urte dazente. Bera gazta eskola batetik dator, gaztagintza ikasi zuen Italian. Biok maite dugu gazta.



Eskuz eginikoak salgai herriko plazan

Eguraldiak lagunduta, jende ugari bildu zen plazan artisautza azokan maiatzaren 3an. Eztiak, gaztak eta taloak dastatu; pitxiak, burukoak eta jantziak probatu; ukendu eta xaboiak usaindu; eta Gure Esku Dago ekimena babesteko aukera izan zuten herritarrek.





Kataluniako erraldoiak

Kataluniatik etorritako dantza-lagunak izan zituzten Pellok eta Nikolasak. Herrian zehar ibili ziren musika-rekin jira eta buelta. Elizako aldapatik behera, plazan egin zuten azken dantza. Ondoren, argazkia atera zuten erraldoiak dantzan jarri zituzten guztiek.



Hogei urte, jauzi bat eta milaka urrats.

1995ean sortu zen Harribil, Oriok dantza talderik gabe urteak zeramatzanean. **Dantza desagertzeaz zegoenean txinparta bat nahikoa izan zen**, berriz ere, dantzarako garra pizteko eta herritarrengan itzalduta zegoen tradizioa hauspotzeko.



TESTUA: OLATZ ARTOLA

ARGAZKIAK: HARRIBIL

Hogei urte atzera egitean, oraindik gertukoak zaizkien emozioak etorriko zaizkie gogora askori. Oroitzapen gozoak. Desagertzeaz zegoen ohitura berreskuratu zuten. Hankak astintzen hasi ziren. Dantza-tradizio handiko herria dantzan jarri zuten, Harribil sortu zen.

Harribil, Gortzintziren ubera

Itsas bazterreko harkaitz biribil bat da Harribil. Dantza taldeak badu izenetik, harkaitza bezain sendoa, itsas-brisa freskoaren parekoa eta biribila –bere zentzu hertsienean– baita. 1995ean jarri zitzaion izena eta eman zitzaion forma hainbat dantzazalaren proiektuari.

Euskaraz gazte izena zuen ekimena jaio zen Euskara baztordetik. Ekimenaren harira, 1995eko urrian, festa handi

bat egin zen. Jaiaren aitzakiarekin dantzan aritzeko eskatu zien garai batean Gortzintzi dantza taldeko kide zirenei. Festa kilometroak txiki baten antzera gogoratzen dute. Hondartza aldean izan zen, kanpinaren bueltan.

Oholtzara igo eta jaistea erabaki zuten. Harribilen abiapuntua izan zen jai hura. Ordutik belaunaldiz belaunaldi dantzarekiko garrak bizi-bizi jarraitu du.

Hasiera jendetsuak

Bi bide paralelotan hasi ziren lanean. Batetik, elkartearen estatutuak osatzen ari ziren; eta, bestetik, dantzariak biltzeko deialdia egin zuten. 30 lagun inguru bildu ziren. Boom modukoa izan zen herrian, dantzan ikasteko gogo a piztu zien askori.

Adin eta jakintza ezberdinetako jendea elkartu zen. 16 urte zituen gazteenak eta 40 urtera gerturatzen zen zaharrena. Dantzan zekitenak zeuden, baita arin-arin eta fandango herriko plazan sekula dantzatu ez zutenak ere.



Anitza zen taldea. Ilusioz gainezka eta lanerako gogoz beteta zeuden; hasiberrien ilusioarekin eta dantzari ohiak dantzara bueltatzeko gogoarekin.

Taldearen barruan azpi taldeak egin zituzten, lana banatzeko. Batzorde modukoak osatu zituzten eta bakoitzak bere ardurak zituen: dirua, materiala, arropa...

Hasi eta urte betera egin zuten lehen emanaldia, 1996an. Herriko festetan izan zen, sanpedroetan. Harrera paregabea izan zuen; ezin hobea.

Usadio berritzailea

Orain hasiera garai horietara begiratuz gero, dantza talde tradizional gisa definituko dute. Duela hogeitaz urte, ordea, berritzaileak ziren. Betidanik ikasi zuten dantza tradizionala eraldatzen hasi zen, eta Harribilkideak olatu horretan sartu ziren. Ez soilik dantza egiteko moduan, baita arropan eta musikan ere, esaterako.

Berritzaileak izan arren, ez zioten tradizioari traizio egin. Oinarria ondo landu zuten, eta, bereziki, Euskal Herriko ohi-ko dantzak egiten zituzten. Baina berentzat berriak ziren dantzak ere ikasi zituzten.

Mugarri izan zen jantzietan Harribil, oraina eta geroa markatu zituen. Ordura arte motadun jantziak erabiltzen ziren dantzarako, ia beti. Geroztik, ordea, moda desfile baten pareko dira dantza emanaldiak. Gaur egun, oraindik, hasiera garaiko jantziak ere erabiltzen dituzte, nahiz eta emanaldi berri baten atarian jantzitegia aldatzen duten.

“Berritzaileak izan arren, ez zioten tradizioari traizio egin. Oinarria ondo landu zuten”

“Osagai guztiekin lortu dute dantzari sena lokartuta zuen herria esnatzea”

ZENBAKIA

1995

Urtean sortu zen. Duela hogeitaz urte jaio zen Harribil dantza taldea. Gortintzi taldekoak ekitaldi instituzional baterako elkartu, eta, ordutik, etenik gabeko bidea egin du.



Eraldaketa eman zen, eta, dantzak Orion zuen berezko esentzia galdu gabe, bide berrietan hasi ziren jauziak egiten, kriskitin jotzen eta hankak astintzen.

Ondo errotutako dantza taldea

1996an egin zuten lehen emanaldia, San Pedro jaietan. Aiara, Adunara, Italiara, Palentziara eta beste hainbat tokitara joan ziren. Urtero, herrian, ekitaldi bat egiten zuten, gutxienez, eta urte osoa hori prestatzen igarotzen zuten. Berak prestaketa lanetan eta herritarrek zain. Sona handiko ekitaldia bilakatu zen, oriotarrek sekula galtzen ez zuten hitzordua.

Ondo sustraitu zen Harribil dantza taldea Orion. Eta aurretik Gortzintzikoa gerta ez zedin, ernatu zen lorea ihartu ez zedin, Udalari eskaera bat egin zien.

Musika eskolan, gainontzeko instrumentuekin batera, dantzako eskolak ematea eskatu zioten Udalari. Ez zioen trabarik ipini, ondo ikusi zuten hasiera-hasieratik eskaera. Onartu egin zuten, eta, umeek, oso gaztetan, euskal dantzak ikasteko aukera izan dute geroztik.

Horrela hasi ziren, txiki-txikiak zirenean, egun Harribil dantza taldearen gidaritza eramaten dutenak. Gutxi gorabehera sei urte zituztenean eman zuten izena musika eskolan, eta, orain, hogeita sei urterekin, dantzan jarraitzen dute.

Musika eskolako eskaintzan dantza sartearekin beren helburua beteko zela ziurtatu zuten: aurretik gertatu zena berriz ez gertatzea. Dantza ez desagertzea Orion. Harribilek ibilbide luze eta oparoa izatea.

Eragile eredugarri eta parte hartzailea

Hamasei dantzarik osatzen dute Harribil dantza taldea gaur egun. Urteak pasa arren, egoera ez du aldaketa bortizik jaso. Dantzarien adin-tartea handia da oraindik ere, hamasei urtetik hogeita sei urte bitartekoak dira.

Oraingoan, ordea, musika eskola harrobitik datozenez, oinarria guzti-guztiek dute; nahiz eta garaiak aldatu eta egun dantzaren oinarrietan ez den fokua lehen bezain beste jarritzen. Sormenari ematen zaio, egun, garrantzia itzela.

Sortzaileak dira taula gainera igotzen diren dantzariak, baita itzalean lan egiten duten jostunak edo musikariak ere. Sortzaile talde batek ondo jositako sarea osatzen dute emanaldi bateko partaide guztiek. Eta, pieza guztiak dira garrantzitsuak: musika, koreografia, teknika, arropa...

Osagai guztiekin lortu dute dantzari sena lokartuta zuen herria esnatzea eta dantza ekitaldi bakoitza, urtero-urtero, egutegian gorritz biribildutako eguna izatea. San Juan bezperako ekitaldiarekin hasi ziren, eta ohitura bihurtu da herrian. Egun horrek jada ez luke zentzurik izango dantzarik gabe. Sanjuanetakoa ez ezik, Harribil ere urtero-urtero, hutsik egin gabe, antolatzen den jaia da.

Eta, horiez gain, hamaika ekitalditan hartzen dute parte: festen deia darrean, dantza txapelketaren antolakuntzan, soka dantzan, Bisigu egunean, Karmengo Amaren egunean... Herriko folklorea batzen duen festabatean beti izaten du tartea Harribilek; zuzenean edo zeharka, festaren aitzakian, beti hartzen dute parte.



Behar adina denbora ez dutenean

Denbora asko eskaini behar zaio dantzari. Ez soilik taula gainera igo eta dantza egitea; baizik eta koreografia asmatzea, entseguak egitea, kantua lotzea, emanaldia antolatzea... kudeaketa handia da dantza taldeak eskatzen duena. Eta, sarritan, denbora gutxiegi dute horretarako gutzirako.

Hamasei dira taldean, eta kopuru polita den arren, batzuetan motz gelditzen dira. Baten batek entseguetara joan ezin badu, hutsunea gehiegi nabaritzen da; eta, antolakuntzan, esku gehiago eskertuko lituzkete.

Eskertuko dutena, bai ala bai, mutilen presentzia da. Musika eskolan dabilen mutilen kopurua handia da, baina, Harribilerako pausoa oso gutxi ematen dute.

Egiteko asko, baina gogobetetzea ere handia

Gainontzeko kirolean, emaitzak, asterokoak dira. Egindako lanaren fruituak asteburuko partidaren etortzen dira. Baina, dantzan ez da horrela. Eguneroko lana eskatzen du, prestakuntza handia, eta saria sei hilabetera jasotzen da.

Askok, aukeraketa bat egiterakoan, dantza uzten dute alde batera. Pena da. Dantzan ez zara soilik dantzaria, dantzariak beregain beste hainbat betebehartzen ditu. Eta horiek guztiak ondo ateratzen direnean jasotzen den poztasuna ikargarria da. Sei hilabete buru-belarri lanean aritzeak me-rezi du, oholtza gainera igo eta dantza saio batean barrena hustu ostean publikoaren txalo zaparra jasotzea bezalakorik ez baitago.



HOGEI URTEAK OSPATZEKO FESTA EDERRA

Hogei urte ez dira edonoiz betetzen. Data esanguratsua da harribiltarrentzat urteurrena, baita ospakizun festa egiteko aitzakia ederra ere.

Ekainaren lehen ostiralean, ekainaren 5ean, ekitaldia egingo dute Karela kiroldegian, gaueko 22:00etan. Emanaldian Harribilen historia, ibilbidea, azalduko dute. Hasieran egiten zituzten dantzatatik abiatu eta gaur egun dantzatzen duten horietara egingo dute bidaia. Dantza taldeak izan duen garapena ikusiko da.

Dantza egitera 37 lagun inguru animatu dira, gutxi gora-behera. Hasiera garaiko dantzariak eta gaur egungoak, guztiak elkarrekin arituko dira dantzan. Ilusioz daude guztiak; oraingoak, haize freskoa eta giro aparta dagoelako; eta, hasierakoak, sekula itzali ez zaien garra piztu zaialako. Emozioak bor-bor dituzte guztiak.

Dantza ekitaldira animatzen ez direnek izango dute ospatzeko aukera. Larunbatean, ekainaren 6an, bazkaria egingo dute Aiako Altxerri jatetxean. Izen ematea bukatu den arren, azken momentuan animatzen direnek ere izango dute aukera mahaiaren bueltan hogeigarren urteurrena ospatzeko.

Duela hamar urte, antzerako festa bat egin zen. Jendea dantzara gerturatu zuen ospakizun hark, eta hori errepikatzea nahiko lukete Harribileko kideek. Hogeigarren urteurrenaren harira dantzaren sua hauspotzea espero dute, eta horretan ahaleginduko dira.



Amet's Arrozpide Blanco

Denbora baino lehen iritsi zen Amets gure artera baina dena primeran atera zen. Apirilaren 20an jaio zen 22:55ean eta aurpegian nabari zitzaizkion amaren sabelean egoteko falta zitzaizkion asteak; hala ere, 2.860 gramo pisatu zituen. Oinatzek asko zaintzen eta maite du bere anaia; gurasoak txoratzen gaude gure bi txikiekin.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Garitanoren jokabidea txalagarria eta eredugarria da, bai. Baina Gaizka Garitanori gertatutakoak euskaldunen eguneroko arazoak bistarazteko balio du”

Jakes Goikoetxea, Berrian, apirilaren 28an.

“Eskuinak bertutetsua dela uste du, debekua du gozoki. Ezkerrak ere errotua dauka paradisu lurta bat lortzerainoko utopia, eta debekua du plazer deliziusa. Bat datoz biak: ideologiek muinean dute zuzentasunaren galga”

Anjel Lertxundi, Berrian, maiatzaren 17an.

ORION UDA SASOIAN 2015



Eskeulak, igerilekuak, puzgerriak, jolasak, hondar jolasak, padela, hondartza, ginkunak, stand-up paddle, orientariora, eskalada, patinak, futbola...

Ordnung: 9:30-12:30

JARRIA (*Astolohemata ostrivora*)

Measurement methods

- LIZTAILA 6-17/20-30
- ABUZTLIA 3-14/17-20

Удобно расположено в центре 1155 паромной остановки

MILA ALIKERA UDARA HONTAN

UDA KANPAINA 2015 KARELA

[illegible]

943 894 428 - oric@bpxport.es

Espainiarrengandik ikastekoak



Iñigo Gaiton

Ederra Manuela Carmena entzutea, bozkak irabazi edo lortu beharrean herritarrak seduzitzeaz hizketan. Fina emakumea, eta ditzosozkoa terminologia.

gandean ilusio handiz jarraitu nituen Madrilgo alkatetzarako hauteskundeak. Gozo-gozo. Ederra Manuela Carmena entzutea, botoak *irabazi* edo *lortu* beharrean herritarrak *seduzitzeaz* hizketan. Fina emakumea, eta ditzosozkoa terminologia: bitartean, gu, Motondo *hondoratzekotan*. Ederra ere Bartzelonakoa eta noski, Nafarroakoa.

Igandean espaloian ahotsa ere entzun zen herritarrekin batera, leku batzuetan, borroka txikiekin iraultza handiak egin daitezkeela oihuka. Ilusioa. Azken hauteskundee-tako emaitzek argi utzi dute jende askok bozkatu zuela esperantzaz, irrikaz, aldaketa egarriz. Bada azken hamarkadetan politikak soinean izan duen lurrin mediokrearekin bukatu, eta kaleko jendea botereko eserlekuetan jartzeko nahi erre-ala.

Benetako aldaketa hasi da Espainian, eta egia esan, oportetara baino, hara lau urte bizitzera joateko gogoia ematen du. Interesgarri jarri da kontua, ezta? Are gehiago etxean, Orion, dugun panorama makurra ikusita. Esperantza Agirre bat behar al dugu espabilatzeko? Edo alternatiba duinen fal-tagatik jarraitzen dugu ohiko alderdiak bozkatzeko?

EAJ eta EH Bilduk Orion, Espainiako PP eta PSOEren lur-zoru eroso berean jokatzen dituzte euren partidak: hik sei eta nik lau aurten; nik lau eta hik sei hurrengoan. Gehiago edo gutxiago, tarta hiretzat edo niretzat.

Nire iritziz, *kontserbadore katolikoak* kontserbadoreak di-relako dira eskasak. Logikoa. Eta ezkerreko *iraultzaileak*, be-netako iraultzarik egiteko gaitasunik ez dutelako. Kaka za-harra. Agian *patua* gogorregia izan da Bildurekin herrian, baina ez dakit, pare bat gaztako ondo mereziak zituztela pentsatzen dut. Edo hiru ere bai.

Kontrako haizearekin, trebe ibilita, nabiga daiteke helmu-garantz. Haizerik gabe, ez. Oker ez banago, EAJ agintean zela okupatu zen Etxeluze, adibidez. Mmmm, ulertzen? Hortxe utziko dut hori, nahi duenak bi buelta emateko.

Orain dela hilabete batzuk, taberna-giroan, haxe esan nion lagun bati, zirika: *Espainiar estatuan mugimendu sozia-lak jartzen badira boterean* –Podemos etab.–, *nahiago diat bertan jarraitu, EAJ edo Bildukoekin Euskal Herri indepen-dentean bizi baino*.

Erdi-txantxetan esan nuen hori, eta orain, erdi-serio pen-tsatzten dut.

Joana Murgiondo
Asesamtu-ajentea

ASEGURUA

ESKALA CENTRAL, SAGOTY CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

KOLON TXIKI
interiorismo
decoración

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

MENDIZABAL
AROSZTEGIA
Nabarroko enbasaak
eta egur haak

943 831 175 Altsam bidetec
645 708 493 Berr-Akiz etako
mendizabalarosztegi.net 20810 Aja-Orio

LOBETXU JATETXEA

Eusko Gudari, 18 tel: 943 83 00 07



Iñigo Fernandez Ostolaza

20 urteko gainbehera

Hondartza 20 bat metro bakarrik luzatu da. Espero zutenaren kontrara: itsasbeheran izaten genuen hondar eremua galdu egin da, eta Anarri aldera egiten zen hondartza zeharo desagertu.

20 urte dira oraintxe, ibaiaren bestaldean *Putomuroa* egiten hasi zirela. Orduan hasi zen Orioko hondartzaren gainbehera. Merezi du hura egitea baimendu zuen *ingurumenaren gaineko inpak-tuaren txostena* berreskuratzea. AZT Iren arabera, honako aldaketa hauek gertatu behar zuten hondartzan, *kantpoko barraren* ondorioz:

Como efecto secundario de la reducción de altura de ola incidente en la playa, puede producirse un cierto cambio de perfil de playa. Una nueva altura de ola supone menor capacidad para formar barras extensas. Sin embargo, el cambio de oleaje incidente puede alterar la granulometría del sedimento, aumentando los finos, evolucionando hacia una playa con menor pendiente.

Hau da, gertatu denaren justu kontrakoa gertatuko zela uste zuten: orain hondarra ez da finagoa, askoz ere larriagoa baizik; eta, gainera, ur izkinako aldapa ez da berdindu, baizik eta alderantziz, nabarmen handiagotu. Begi-bistako kalteak ekarri ditu horrek: deserosotasunak paseatzeko, zailtasunak uretan sartu-irteteko, hondartza zikina, eta abar.

Se deriva del incremento de playa actual, que se puede valorar en 65 m más, lo que representa una elevada ganancia de terreno de ocio y esparcimiento para la población de Orio.

Hau da, uste zuten 65 metro luzatuko zela hondartza itsaso aldera, baina 20 bat metro bakarrik luzatu da eta, gainera, espero zutenaren kontrara: itsasbeheran izaten genuen hondar eremua galdu egin da, eta Anarri aldera egiten zen hondartza zeharo desagertu.

Kantpoko barrak Orion sortuko omen zituen lanpostuei buruz, honakoa dio AZT Ik txostenean: *Es difícil saber cómo incidirá esto en la creación de empleo, pero no sería descabellado pensar en 10 empleos directos en relación con la venta y comercialización de pescado y otros 30 en industrias auxiliares. No se han tenido en cuenta aspectos como puertos deportivos, que podrían generar de 100 a 200 empleados.*

Ez al dira benetan lotsagarriak 1995. urtean *Putomuroa*-ren eraikuntza baimentzeko egin zituzten iragarpenak?

Arrantzaleek konponbide bat nahi zuten, nola edo hala. Ahalegin ezberdinak egin ziren-espigoia luzatu, ibaiaren bestaldean hiru espigoi egin...-, alferrik. Azkenean, konponbide puztu bat proposatu zuen Jaurlaritzak: *Putomuroa*. Eta herri honek onartu.

Horrek guztiak gauza bat behintzat erakusten du argi: herri batek zerbait nahi duenean, azkenean lortu egiten duela, nola edo hala. Hortaz, zer nahi dute orain oriotarrek? Egingo nuke hondartza berreskuratu nahi dutela gehien-gehienek. Maila emango al dute udal ordezkari hautatu berriek?

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.



Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

BODEGAS



Gailur

WINE BODEGAS
 Celleras y Bodegas
 de la zona de Rioja

Araceli Ferraz

ZUDUGARAI



Gabriel Zudugarai

Tel: 943 10 85 00
 Fax: 943 10 82 00
 E-mail: zudugarai@zudugarai.com
 www.zudugarai.com

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

XS

obrak
 proiektuak
 errehabilitazioak
 txostenak
 eraikuntza zerbitzuak
 ITEak
 eraikinen mantenua

arkitektura



barja agiresarabe lapelagi
 henko-baita 6, behea
 20600 zaratutz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
 9 4 3 1 3 4 3 5 8
 xs@xsarkitektura.com

LUXARBE
Calderin

Igeltzeritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tlf: 943 53 59 00

He gaitzidena

MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
 Tel: 943 13 47 29
 ORIO

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitarkekoak

943 83 06 09



KAUJA

TUPI-TAPA, TUPI-TAPA, KAUJA
 bokata ederrak jotera

Andara perua 35, behea
 Tel: 943 840 080



AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./ Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

ANORGA TXIBI S.L
 KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiuak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

azkue

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
 20809 Aia-Orio
 Tf/fax: 943 83 51 86
 carroceriasazkue@hotmail.com



Debekatua duzu arazoei irribarre ez egitea, bizitza pozik ez bizitzea.

Debekuen historia tristea

Oroimenaren kutxa

Debekatu, galarazi, eragotzi, oztopatu... Euskal hiztegiak hitz sinonimo asko ematen dizkio debekatzeari. Debekua agintea duenak jarri ohi du, araua betearazteko indarra daukanak. Debekuen historia aspaldikoa da, antzinakoa. Askatasunaren kontrako jarrerak historia luzea du. Orion ere oro ez da urre. Adibide triste asko dago; batzuk, ergelak: garai batean, arraunlariak galarazita zeukaten ura edatea, kirolarientzat txarra zelakoa. Orain bizpahiru urte, berriz, moilan igeri egitea galarazi zuten. Emaizta: iazko udaran sekula baino ume gehiago bainatu zen ia egunero Orioko moilan.

Francoren diktaduraren garaia ezagutu dugunok badakigu orduan ikurrina galarazita zegoela, manifestazioak edo bile-rak egitea ere bai, baita euskara eremu ofizialetan erabiltzea ere. Horretan batzuek antzera segitzen dute, gogoan izan Eibarko entrenatzaile Gaizka Garitanori Almerian gertatutakoa.

Debekuak gauzatzeko bi osagai behar izaten dira: legea edo araua, eta herritarra horretara behartuko duen indarra: balizko infernua, polizia... Baina inori inolako kalterik ez dakarkioten jardueretan debekuak ez du zentzurik. Gai horietan norberak libre erabaki beharko luke zer egin. Zentzugabeko debekuari aurre egiteko ere bi gauza behar dira: kemena edo ausardia, eta zentzuz jokatzeta. Horixe egin zuen Garitanok. Horixe egin zuten orain 25 bat urte Euskal Herrian derrigo-

rrezko soldaduskari aurre egin zioten gazteek ere: kemenez eta zentzuz jokatu, intsumisio baketsuaren bitartez. Eta irabazi egin zuten. PPk hezkuntzari emandako LOMCE legearen kontra ere ari dira orain batzuk jo ta ke.


Orain, Orion, neska gazte batek erakutsi digu horrelako jar-reraren adibide bikaina, 15 urteko Rut Atxegak. Azken Kar-karan iritzi-artikulu zoragarria idatzi zuen, 16 urtetik behe-rako haur eta gaztetxoek bizikletan ibiltzeko derrigor kaskoa jantzi beharraren kontra: *lege horren kontra nago, bakoitzak ikusi behar du zer duen beharrezko eta zer ez, nik badakit bizi-kletan ibiltzen eta ez dut kaskorik behar, kaskoak aukerakoa behar du; nahikoa trebetasun izanda, bidegorrian joanda eta seinaleak errespetatuz ez da kaskoaren beharrik*. Hori da hitz gutxitan askatasunaren aldarrikapena ondo egitea hori! Be-jondeizula, Rut! Parisko iraultzako *debekatuta dago debeka-tzea* ekarri didazu gogora.

Gaztetxoek bizikletan ibiltzeko edonon eta edonoiz kas-koa janztea derrigortzen duen legea bizikletan ibiltzea bate-re maite ez duten PPko agintariek asmatu eta ezarri zuten; 300 kilometrotik gorako abiadan dabiltzan auto eta motoen lasterketak sustatu eta pilotu horiek idolo bihurtzen dituz-ten berberak. Lege horren kontra Euskal Herrian gehien bo-rrokatu dutenak aspalditik bizikletaren erabilera sustatzen dabiltzan talde ekologistak dira. Donostian: Kalapie, hiriko txirrindularien elkarteak.

Txarrena da botereak askotan lortzen duela bere lege eta agindu zentzugabekoenek ere bidea egitea, herritarrek onar-tzen dizkiegulako. Zirkua eta ogia eskaini ohi zieten Erroma inperialaren garaiko agintariek herriari. Oraingoek futbola eskaintzen digute, nonahi eta noiznahi. Horren atzean ezku-tatuta, lapurreta beldurgarria egiten dute, eta herria errepri-mitu, modu askotan, baita kasko horren bidez ere. Eta, zen-bait herritan, herritar eta talde batzuek onartu egiten dute lege txatxu hori, eta agintari batzuek betearazi. Ea Orion zer!

INAKI ITURAIN

Aurrekontua igo ez arren, diru-laguntzak ez dira jaitsi



Udalak eta KARKARAK hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 21ean. KARKARA

Guztira 155.825,57 euro emango dizkie Udalak herriko eragileei 2015ean; 109.857 kirol elkartei eta 45.968,57 kultur eta gazterian.

Kirolari dagokionean hiru zatitan banatzen dira diru-laguntzak: ohiko laguntzak, ez ohiko laguntzak eta arraun taldearenak.

Lehen multzoan 9 kirol elkarte daude, eta 35.527 euro. Orioko Mirotzak

areto futbol taldeak 1.000 euro jasoko ditu, Zast Orio elkarteak 6.000 euro, Orioko Futbol Taldeak 11.000 euro, Orioko Bate Bizkorak 4.000 euro, Aldapa Elkarteak 1.690 euro, Muskuilu Harria elkarteak 1.584 euro, Orioko Surf Taldeak 2.453 euro, Berdin Berdinak 4.417 euro eta Talai-Mendi Elkarteak 3.383.

Ez ohiko diru-laguntzetan, 1.500

euro eman dizkio Udalak Surf Taldeari 2015ean. Azkenik, Orio Arraunketa Elkarteak 72.830 euro jaso ditu.

2015ean, kultur jardueren alorrean 21.549 euro emango dira guztira. Zazpi eragileren artean banatzen da diru hau. Salatxo abesbatzari 8.875 euro dagozkio, Harribil dantza taldeari 4.750 euro, Ostargi elkarteari 500 euro, Herrio Natur Taldeari 650 euro, Egunsenti Otxoteari 3.100 euro, Mandalara elkarteari 2.474 euro eta Errikotxia Bertso elkarteari 1.200 euro.

Gazteriarri 20.919,57 euroko diru-laguntza eman zitzaion 2015ean, Txurumusi Elkarteari, hain zuzen. Bestalde, auzoetara 3.500 euro bideratu dira.

Ordainketak bi zatitan egiten dira. Dirulaguntzak diktaminatzen direnean, %75a ordaintzen zaie eta eragileek zuriaketak aurkeztzen dituztenean %25a, likidazioa, ematen zaie.

KARKARAREKIN HITZARMENA

KARKARAK hitzarmena sinatu zuen udalarekin maiatzaren 21ean. Bertan, hitzarmenak indarrean irauten dituen 4 urteetan, urtero 20.600 euroko diru-laguntza emango dela ebatzen da.

Aurreko hitzarmenean, 2012an sinatutakoan, 15.750 euroko diru-laguntza hitzartu zuten Udalak eta KARKARAK.

Bildu

Herria bizirik izateko laguntza

2011tik 2014ra elkarreentzat diru laguntzak %12 igo dira, 244.000€tik 294.000€ra; eta deialdi ireki bidezko diru laguntzak %5a, 120.000€tik 127.000€ra. Ezinbestekoa udala eta elkartearen arteko elkarlana. Taldeen beharrei erantzutea lehenetasuna da guretzat; eragileei babesa ematea eta baliabideak eskura jartzea, herria bizirik mantenduz, herrigintzan protagonistak direlako.

Orain

Diru-laguntzak eragileentzako

Euskaraz esanahi garbia du: eragile bati, irabazi asmorik gabekoa gehienetan, diruarekin laguntzea bere jardun arruntan egiten duen lanak etekin soziala lortzen duelako. Normalean erakunde publikoetatik laguntzen da eta Orion gardentasunaren bidean urratsak eman dira: eragileekin adostu dirua banatzeko baldintzak eta ematen denaren informazioa publikatu, besteak beste.

EAJ

Egonkortasuna helburu

Gizarte erabilierik ez duen herriri zerbait falta zaio. Eragile hauek herritarren beharrak eta nahiak asetzeko sortuak dira, erantzunkizuna eta solidaritatean baloreetan oinarritzen dira. Helburuak lortu eta herriaren zerbitzura dauden ekimenak aurrera eramateko, udaletik ematen den finantziarioaren egonkortasuna lortzera bideratuko diren pausoak eraman behar dira.

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Abel Barriola pilotaria eskolan



Abel Barriola gure eskolara etorri zen elkarrizketa bat egitera. Hasieran Uxuek, Nereak eta Saioak era askotako galderak egin zizkioten. Segidan, besteok ere izan genuen aukera gehiago galdetzeko. Gero, bertso batzuk abestu genizkion. Bukatutakoan, beretzat propio bordatutako txapel bat eta eskolako kamiseta bat oparitu genizkion. Amaitzeko frontoira joan ginen bera-rekin pilotan jokatzera. Oso pertsona jatorra eta naturala da.

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

GBC-koak Ikastolan



Maiatzaren 13an, GBC-ko bi jokalaria izan ziren ikastolan: Will Hanley eta Tom Abercrombie. DBH4koak berentzat hainbat galdera geneuzkan prestatuta, batez ere, saskibaloiko bizimoduari buruzkoak. Jokalariak gustura erantzun zituzten gure galderak. Elkarrizketa ingelesez izan zen eta ondoren berekin saskibaloian jokatzeko aukera izan genuen. Eta, gainera, topaketa hau zela eta GBC-ren partida ikusteko sarrrerak ekarri zituzten opari!

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren entzunaldian izan ginen



Zaraguetako kideak EOSk Miramonen duen egoitzan izan ginen. *Suzko Txoria, suite 1919* ipun-musikatua entzun genuen. Orkestraren musika tresnen talde ezberdinak sortarazten zizkiguten emozioez jabetu ahal izan genuen: misterioaren zirrara, maitasunaren doinu gozoa... *Zer sus-toa!* zioen batek baino gehiagok ere perkusio taldea bat-batean gelditzean. Erraz konformatuko ez den ikusleria izan dute oraingoa orkestrakoek!



Alba Moreno

Lagunari irakurtzen

Liburuaren egunean, hau da apirilaren 23an, guk eskolan *lagunari irakurtzen* ekintza burutzen dugu. Ikasle zaharrenok, txikiagoei aurrez aukeratutako ipuinak irakurtzen dizkiegu.

Ekintza hau oso baliagarria da ipuin kontalariok ume txikiak harremanak estutzeko, eta, horrez gain, ikasleak jendaurreko lotsa galtzen laguntzen du. Pertsona lotsatiei gehiago kostatzen baitzaie beste pertsona edo umeen aurrean irakurtzea edo hitz egitea.

Gainera, ikasle txikiagoak ere irakurketan trebatzen laguntzen du; eta, honela, gero eta guxtiago kostatzen zaie irakurtzea; baina, esan behar dut ez dela bakarrik horrelako egunean irakurri behar, baizik eta gomendagarria dela egunero –gauero– irakurtzea.

Amaitzeko, *lagunari irakurtzen* ekintza oso ideia ona da irakurtzen dutenek hobeto edo gehiago irakurtzeko eta txikiak ipuinen irakurketan murgildu daitezen. Ekintza oso polita da.

Harremanak estutzeaz gain, ikasleak jendaurreko lotsa galtzen laguntzen du.

Talentu asko metro karratu gutxitan

Kritika 100m karratu

Antzezlana, Iñake Irastorza, Ana Elordi eta Ramon Agirrek antzeztu zuten maiatzaren 8an Orioko Kultur Etxean.



Antzezlaneko eszena batean Irastorza eta Agirre. KARKARA

Maiatzaren 8an *100 metro karratu* izeneko komediaz gozatzeko aukera izan genuen Orion. Kultur etxea osorik bete zen. Eskarmentu handiko hiru aktore ezagun aritu ziren ohol-tza gainean: Iñake Irastorza, Ana Elordi eta Ramon Agirre.

Sarak –Elordi– etxe bat erosi du. Baina baldintza batekin: Lola –Irastorza–, 65 urteko emakumea eta etxearen jabea, bertan biziko da hil arte. Horrela hasten da bi protagonisten arteko istorioa. Horiez gain, Dioni –Agirre– izeneko pertsonaia bitxia ere agertuko da ikuskizunean zehar ikusleari une atseginak pasarazteko.

Antzezlana freskoa, dibertigarria eta arina da. Gustura ikusten den horietakoa. Ordu eta erdi inguru iraun zuen ikuskizunak, baina ziztu bizian pasa zen denbora. Denetarik duen trama da. Barre eginarazteaz gain, ikusleari bestelako sentimenduak eta hausnarketak ere sortarazten dizkio.

Gainera, Irastorza oriotarra izanda, ikusleok ahulezia berezia genuen berarekin. Guztiok adi-adi geunden berak zer egingo. Horrek beste puxtarri bat gehitu zion antzezlanari.

Ea horrelako gehiago ekartzen ditugun herrira!

JON GARATE



mauka
PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943.572083
FAX: 943.571190
l.asenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
IBAILONDO 13
20810 ORIO



gizarte
kutxa



Maider Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLÓGIA ZENTROA

libe
dietetika
elkadura aholkularitza

elutxo-gudonak 35 - ORIO

Musika instrumentalaren goxotasun eta gogortasuna

Kritika Giranice-Sofa

Aurkezpen kontzertua, Giranice taldeak Ur diskoa aurkeztu zuen maiatzaren 22 gauean, Orioko Kultur Etxean.



Giranice taldea Orioko kultur etxeko aurkezpenean. IBAN EGIGUREN

Musika instrumentalaren goxotasun ta gogortasuna bai! Nola leike 3 eta 5 taldekideen artean hainbeste aldaketa egin eta bidean ez galtzea? Soinu ederra, jende dezente adin ezberdinetakoak anfiteatro huts bat aurrean nola ez!

Sofa orain dela gutxi ikusi nuen, egurra daukate. Hasi da, doinu afrikar, elektroniko, funky...gitarren punteo ugariak soinu anitzekin. Gustura ari dira, ez daude guztiz aske, agian ez da girorik etxekoena. Hankak eta burua nahigabe dantzan, ni ere kikilduxamar mugimenduekin. Gozaten...azken kanta *Deep Purpleren* bertsio bat omen. Bukatu da. Ona, baino adierazpen pixkaten faltan. Aurreko kontzertuan gehiago gozatu nuen.

Ea Giranice: Ur lanaren aurkezpena. Atzealdean toldo bat lainoen irudiekin. Bi gitarra, baju bat, bateria, biolina...leun hasten dira, haurtzarora narama, begiak itxita, nostalgia puntua, aldaketa gogorra erritmikoagoa, doinu inguratzailerak, soinu banda bat dirudi, indarra hartzean aurre egiten dio egoerari. Kanta luze xamarak izatez baino antzeman ez. Txalo!

ZORIONE MENDEZ

eduzitegia
ANTILLA
juleta

Ahosiari kafea. 2 - TEL. 943 83 23 00

2 GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20610 Orío (Gipuzkoa)

T 943 836 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Gizartea

1936an Aian bizitakoa liburu baten bildu dute

Aia 1936. Gerra Zibila, errepresio frankista eta Giza Eskubideen urraketa. Titulu hori jarri diete egileek -Eneko Sanz eta Jose Mari Gonzalez de Txabarrik- liburuari. Datorren maiatzaren 30ean aurkeztuko dute, Aiako herrian, goizeko 11:00etan.

Eneko Sanz Aranzadi Zientzia Elkarteko historialaria da eta Joxe Mari Gonzalez de Txabarri aiarrarekin batera idatzi du liburua. Liburuak duela ia 80 urte Aian gertatutako egiara hurbiltzeaz gain, sekula aipatu ez diren zenbait lagunen ibilbidea erakutsiko digu: Gabino Alustizarena adibidez, momentuko alkatea, udaletxean fustilatua izan zena.

@karkara.eus/aia/1432017215604



HASI TXIOKA

Txiokatu Kukuarriko eta Garagardo azokako argazkiak!



Kultura

Gipuzkoa Bertsotan

Maiatzaren 9an hasi zen Gipuzkoa Bertsotan, Txapelketarako sailkapen fasea. Lehen itzulian oriotarrak maila ona eman zuten, bereziki Xabier Sukiak eta Egoitz Eizagirrek, beren saioa irabazi baitzuten. Sukiak 258,5 puntu lortu zituen eta Eizagirrek 250. Bigarren itzulia maiatzaren 17an ekin zuten, Azken sailkapeneko lehenengo 30 bertsolarik lortuko dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkatzea.

Ingurumena

Bizikleta martxarekin gustura

Izugarri gustura. Antolatzaileak maiatzaren 9an egindako bizikleta martxarekin horrela agertu dira, *izugarri gustura*. Garbiñe Manterolak azaldu digunez jende askok hartu zuen parte Orioko natur ondarea ezagutzeko bizikleta martxan. Guraso ugari etorri ziren beren haurrekin, zehaztu du. Odriozolak eta Manterolak berek zuten ezagutza irakatsi zien bertaratutakoei, baina jendeak bere ezagutza ere partekatu zuen.

Hezkuntza

Eskola Agenda 21eko udalbatzarra

Maiatzaren 11n Eskola Agenda 21eko udalbatzarra egin zen, goizeko 10:00etan. Biler horretan bi eskoletako Eskola Agenda 21eko ordezkariak Udalari elikadura jasangarriaren gaiaren inguruan hainbat proposamen eta konpromiso aurkeztu zizkieten. Alkateak egindako proposamenei erantzun zien eta kontuan hartuko zituela adierazi zien ikasleei. Urte osoan zehar ikasleek egindako lana zoriondu beharrekoa da, eta lan hori argazkitan ikusteko aukera izan zen udalbatzarrean.





Gizartea Pentsiodunak duintasun eske

Maiatzaren 26an, Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen Duintasuna elkarteko kideak Orion izan ziren. Hilero herri batean elkartzen dira bilerak egiteko. Goizean, bileraren aurretik, elkarretaratzea egin zuten herriko plazan botiken berrordainketa salatzeko. Horren ondoren, Salatxo aretoan bilera egin eta bazkaltzera joan ziren. Duintasuna elkartea duela hiru urte inguru sortu zen Euskal Herriko pentsiodunen alde egiteko. Gai sozialak lantzen dituzte gehienbat eta adineko pertsonentzako bizi baldintza duin eta autonomoak aldarrikatzen dituzte.

@karkara.eus/orio/1432714173427



Gizartea Hirugarrenez, garagardo bereziak herriko plazan

Garagardo Azokaren irekiera izango da maiatzaren 29an, 19:00etan. Irekieran Mirotsa sariak banatuko dira eta maskotaren izen irabazlea ere jakingo da. 22:30ean, Low Riders taldeak kontzertua emango du. Larunbatean, 13:30ean, Mini klasikoaren erakusketa egingo dute. 20:30ean Fand&Go taldearekin erromeria hasiko da. 21:30ean, Errege koparen finala emango dute pantaila handian. Igandean, beterranoen traineru estropada - 13:00- eta kuadrilla arteko batel estropada -17:00- egongo dira. 20:30ean, zine emanaldia egingo dute.

@karkara.eus/orio/1432714212054

Hauteskundeetako mahai-inguru osoa ikusgai



@karkara.eus/orio/
1431009152436



Aia, Herri Txiki Infernu Handi programan



@karkara.eus/aia/
1431933331405



Bidasoako Itzuliaren 3. etapa Orion



@karkara.eus/orio/
1431326585798



■ AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■Paseoko bizikleta salgai, gris kolorekoa. Merke. Tf: 615790965

■Pisua salgai Aristerra-
zu-Aian. 70 metro karra-
tu, ia berria. bi logela, ko-
muna, egongela handia
eta sukalde handia. Gara-
jea eta trasteroa barne.
129.000 euro. Tf: 628 271
211

■Salarako altzaria, gere-
ziondoaren egurrekin
egindako liburutegia.
Neurriak 221,5 x 243,5 x
37,5 dira. Prezioa negozia-
garria da. Harremanetan
jartzeko deitu 649289154
telefonora.

■Pisua salgai Abaromen-
din. 61 metro karratu eta
140 metro karratuko jar-
dina. Bi logela, komuna,
sala eta sukaldea. Erabat
hornitua. 637419729

■Pisua salgai edo aloka-
gai Orion, Kale Nagusian.
2 logela, sukalde-egonge-
la eta komuna. Alokairua
500€, salmenta
140.000€ Interesatuak
deitu 661679691 telefo-
no zenbakira (Paki).

Alokairuan

■Pisua alokagai epe luze-
rako. 3 logela eta komun
bat 1.83metro karratu, be-
rritua eta estreinatzeko.

Tf: 617 602 117 (Nekane)

■Logela alokagai -16 me-
tro- etxebizitza berrian.
Komun propioa gelatik
kanpo eta 40 metroko te-
rraza. Tf: 652551550

Lan eskaerak

■Garbiketa lanak egite-
ko, zahar nahiz helduen
zainketa eta etxeko lanak
egiteko prest dagoen
emakume gaztea. Intere-
satuak deitu dezala 636
188 388 -Mayerling-.

■Lan bila dabilen emaku-
mea. Sukaldari titulua
daukat, eta esperientzia
jangelan eta zerbitzari la-
netan; baita haurren zain-
tzan eta garbiketan. Inte-
resa duenak 695 914 242
zenbakira deitu dezala.

■Lan bila nabil ume
nahiz zaharrak zaintzen
edo garbiketan -barne-
koa edo kanpokoa-. Inte-
resa duenak deitu telefo-
no honetara: 634 920 471
-Maria Jose-

■Esperientzia daukat
heldu nahiz haurren
zaintzan eta garbiketa la-
netan. Azkenekoz baserri
batean egin dut lan, hiru
urtez. Interesatuak deitu
diezadala 674123293
(Claudia Patricia Gime-
nez)

■Ikasketaz ingeniari me-

kanikoa eta 30 urteko es-
perientzia soldadore la-
netan. Gaztelera, Ukra-
niera, Errusiarra eta Pola-
koa hitz egiten ditut.

Langilea naiz eta lan bila
nabil. 674 946 663 edo
602 628 206 (Bohdan)

■Asteburu etako lan bila
pertsona helduen zain-
tzan. Paperak araututa
eta erreferentziekin.
663117579

Auto-partekatzea

■Orio-Miramón teknolo-
gia parkea joan-etorrira-
ko autoa partekatzeko
prest. 08:15ean Oriotik
abiatu eta 13:30ean itzuli.
Tf.: 655 702 613.

Galdutakoak

■Argazkiko txakurra gal-
du da. Gaixotasun bat
dauka eta tratamentuan
dago. Ikusi baduzu, me-
sede deitu: 609 41 3755
943 83 5451



■ ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	04:26 eta 16:45	10:27 eta 22:49	
02	05:03 eta 17:22	11:05 eta 23:27	
03	05:41 eta 17:59	11:43 eta ____	
04	06:20 eta 18:37	00:06 eta 12:21	
05	07:00 eta 19:18	00:47 eta 13:02	
06	07:44 eta 20:03	01:31 eta 13:46	
07	08:32 eta 20:53	02:18 eta 14:35	
08	09:27 eta 21:51	03:11 eta 15:30	
09	10:30 eta 22:57	04:10 eta 16:32	
10	11:40 eta ____	05:16 eta 17:42	
11	00:09 eta 12:53	06:26 eta 18:54	
12	01:22 eta 14:00	07:33 eta 20:01	
13	02:27 eta 14:59	08:34 eta 21:01	
14	03:25 eta 15:52	09:28 eta 21:54	
15	04:16 eta 16:39	10:16 eta 22:43	
16	05:03 eta 17:23	11:01 eta 23:28	
17	05:47 eta 18:05	11:43 eta ____	
18	06:28 eta 18:45	00:11 eta 12:24	
19	07:08 eta 19:24	00:52 eta 13:04	
20	07:48 eta 20:04	01:33 eta 13:44	
21	08:28 eta 20:44	02:14 eta 14:26	
22	09:11 eta 21:28	02:57 eta 15:10	
23	09:58 eta 22:18	03:43 eta 15:59	
24	10:53 eta 23:15	04:35 eta 16:55	
25	11:55 eta ____	05:32 eta 17:57	
26	00:19 eta 12:59	06:33 eta 19:01	
27	01:23 eta 13:59	07:32 eta 20:00	
28	02:20 eta 14:50	08:26 eta 20:52	
29	03:11 eta 15:36	09:14 eta 21:40	
30	03:57 eta 16:18	09:58 eta 22:24	

■ ZAINTZAKO BOTIKAK

EKAINA:

- 1etik 5era, Lasa.
- 6an eta 7an, Etxeberria.
- 8an, Lasa.
- 9an, Iriarte.
- 10ean, Larrañaga.
- 11n, Mutiozaba.
- 12an, Lasa.
- 13 eta 14an, G. Artiñano.
- 15etik 19ra, Lasa.
- 20 eta 21ean, Azaldegi.
- 22an, Lasa.
- 23an, Mutiozabal.
- 24an, Lasa.
- 25ean, G. Artiñano.
- 26an, Lasa.
- 27an eta 28an, Iriarte.
- 29an, Mutiozabal.
- 30ean, Lasa.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8.
943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17.
943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16.
943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17.
943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo
Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz



Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO

Orio

Talai Mendi astea

- Maiatzaren 29an, bideo emanaldia Talai Mendiren lokalean, 19:00etan.
- Maiatzaren 30ean, kiroldegiko roko-dromoan eta elizako paretan eskalatze-ko aukera, 16:00etan.
- Maiatzaren 31n, Kukuuarri eguna.

Garagardo azoka

- Maiatzaren 29tik 30era Garagardo Azoka plazan. Orio Arraunketa Elkartek antolatuta.

Erakusketak

- Ekainaren 1etik 12ra, Iban Egigurenen argazki erakusketa, kultur etxean.
- Ekainaren 26tik 30era, eskulan erakusketa Ostargi elkarteak antolatuta.

Dantza

- Ekainaren 5ean, Harribil dantza taldearen emanaldi berezia 20. urteurrena dela eta, 22:30ean, Karela kiroldegian
- Ekainaren 13an, Danbolin musika es-

kolakoen dantza emanaldia, 17:00etan, Karela kiroldegian.

- Ekainaren 23an, Harribilen eskutik, San Joan sua arranpla ondoko plazan.

Ekitaldiak

- Ekainaren 12an, Orioko Curriculum Sortzen taldearen ekitaldia, 18:00etan, kultur etxean.
- Ekainaren 21ean, Done Jakue Interpretazio zentrorako doako bisita gidatua, 11:30ean: Erdi aroko erromesa.
- Ekainaren 27an, Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari finala, 11:00etan.

Danbolin Musika Eskolaren Astea

- Ekainaren 15tik 19ra Danbolin musika eskolako entzunaldiak kultur etxean.

Anibarko Portuko jaiak

- Ekainaren 20an, Anibarko Portuko jaiak. Egun osoko egitaraua egongo da.

Bingoa

- Asteazkenero, Bingoa, 16:00etan, kultur etxean.

Aia

Pagoeta eguna

- Ekainaren 7an, pagoeta eguna.

Aurkezpena

- Maiatzaren 30ean, *Aia 1936. Gerra Zibila, errepresio frankista eta Giza Eskubideen urraketa* liburuaren aurkezpena. 11:00etan.

Asentzio feria

- Maiatzaren 31ean, Asentzio feria, Aian.

Lasterketak

- Maiatzaren 30ean, Aiako igoera Andatza auzotik kaskora, 14:00etan hasita.
- Ekainaren 14an, Zarautz-Aia herri krossa, 11:30ean Zarautzen hasita. Kross txikia ordu berean Aiako plazan.

Podologoia

- Maiatzaren 30ean eta ekainaren 20an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren
partaidetzako aurrekontuak

2.000.000 €
UROLA ERDIA hobetzeko

90 proposamen

Eskualdeko batzarrean erabakiko duzue zeintzuk egingo duten aurrera

AZKOITIA. **EKAINAK 9**, 18:30ean, Elkargunean

Antolatzailea

Zure esku dago!

Gipuzkoa
HERRIA



